



Alcatel V-670

erabiltzailearen eskuliburua

ALCATEL
mobile phones

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Sarrera

TCT Mobile Limited-ek eskerrak ematen dizkizu telefono hau erosteagatik.

Musika- eta bideo-irakurgailua

- Doinu-zerrenda, letrak ikusteko aukera eta ekualizadorea
- Bideoa pantaila osoan erreproduzitzea
- Goza ezazu ikuskizunaz 1.8"-ko TFT-ko pantaila batean

Nahi beste bideo grabatzea

- Grabatu nahi beste bideo (1)

USB masa-memoria

Erraz, USB gailu baten bidez.

Web-kamera

PC bidezko berehalako mezularitzaren kiderik onena.

Bluetooth-a

- 2.0 Bluetooth-a
- A2DP profila (Bluetooth estereoa)

Aurkibidea

Erabiltzeko oharrak	5
Informazio orokorra	10
1 Zure telefonoa	12
1.1 Teklak	13
1.2 Hasierako pantailako ikonoak	15
1.3 Kanpoko pantailako ikonoak	16
2 Martxan jartzea	17
2.1 Erabiltzeko moduan jartzea	17
2.2 Telefonoa piztea	19
2.3 Telefonoa itzaltzea	19
3 Deiak	20
3.1 Deiak egitea	20
3.2 Ahots-postontzira deitzea	20
3.3 Deiak jasotzea	21
3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean	22
3.5 Konferentzia	23
3.6 Lineaz aldatzea	24
4 Menua	25
5 Deien erregistroa	27
5.1 Dei-memoria	27
5.2 Nire zenbakiak	27
5.3 Fakturazioa	28
5.4 Deien doikuntzak	28
6 Telefono-aurkibidea	31
6.1 Agenda kontsultatzea	31
6.2 Erregistro bat sortzea	33
6.3 Erabilgarri dauden aukerak	33

7	Mezuak	35
7.1	Mezuak: multimedia/testu-mezua.....	35
7.2	Ahots MMSa.....	37
7.3	MMS argazkia	37
7.4	Bideo-mezuak.....	37
7.5	Mezu elektronikoak.....	38
7.6	Messenger-a.....	38
7.7	Ahots-postontzia.....	40
7.8	Doikuntzak.....	40
8	Nire doikuntzak	42
8.1	Soinuak.....	42
8.2	Kolorea.....	43
8.3	Tapa.....	43
8.4	Giroa	44
8.5	Antenarik gabeko modua.....	44
8.6	Ekualizadorea.....	44
8.7	Pantaila.....	45
8.8	Erlojua	46
8.9	Teklak	46
8.10	Beste doikuntza batzuk	47
9	Tresnak	50
9.1	Bluetooth®.....	50
9.2	Antolatzailea	51
9.3	Alarma.....	52
9.4	Kalkulagailua.....	52
9.5	Bihurgailua.....	53
9.6	Memoriaren egoera.....	53
9.7	Ahots-grabazioa	54
10	Nire lasterbideak	55
11	WAP	56
11.1	Hasiera orria	56
11.2	Lasterbideak	56

11.3	Berriki ikusitako orrialdeak.....	56
11.4	URLra joan.....	56
11.5	Profilak.....	56
12	Multimedia-bilduma	58
12.1	Nire soinua.....	58
12.2	Nire irudiak	59
12.3	Nire bideoak.....	59
12.4	Nire sorkuntzak	59
12.5	Fitxategi ezezagunak	59
12.6	Memoria-txartela.....	60
12.7	Soinuen, irudien eta bideoen kudeaketa	61
12.8	Formatuak eta bateragarritasuna.....	62
12.9	Memoriaren egoera	62
13	Argazkiak eta Bideoak.....	63
13.1	Sarbidea.....	63
13.2	Kamera	63
13.3	Bideoa	65
14	Musika-irakurgailua	68
14.1	Musika	68
14.2	Doikuntzak.....	69
14.3	Hitzak irakurtzea.....	69
15	Jokoak & Aplikazioak.....	70
15.1	Aplikazio bat martxan jartzea	70
15.2	Java doikuntzak.....	70
15.3	Java deskargatzea.....	70
16	Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari	72
16.1	PC programa-paketea	72
17	Testua idazteko modua/ Karaktereen taula	73
18	Telefonoaren bermea.....	77
19	Osagarriak	79
20	Arazoak eta irtenbideak.....	80

Erabiltzeko oharrak.....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea debekatzen zaio gidariari.

Telefonoak erradiozioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airebagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinean.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoaren edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, baizik beste aldekoan. Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Haurrek ez dezatela telefonoa erabili zaintzarik gabe.

Karkasa desmontagarria ordezkatzeko, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian.

Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak -10°C eta +55 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

55 °C-tik gorako temperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, larrialdi-zenbaki batzuetara ezin da deitu. Ez pentsatu zure telefonoa erabat fidagarria denik larrialdi-deiak egiteko.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolestean.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatel bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili (ikus osagarrien zerrenda, 79. orrialdean). Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.


Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan dezake. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbaite gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik. Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorrarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:

 Musika-erreproduzitzailean musika luzaroan ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago.

Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Beti Alcatelen entzungailuak erabili.

• BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA

Telefono mugikorrek argazkiak ateratzeari eta soinua grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefona behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

• BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefona itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limited-ek etajedo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezuean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak berrerabili egingo dira.

Europako Batasuneko herrialdeetan, doan da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan, produktu horiek ez dira ohiko zabortegietara bota behar, herrialdean edo eskualdean birziklatzeko eta biltzeko aukera badago. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birzikla daitezten.

ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

• KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago.

• UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da. IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK. Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP)⁽¹⁾ eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) (2) gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatuz diseinatuta eta fabrikatuta dago.

Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Aditu independenteek ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz. Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

Telefono mugikorren arauak "SAR" (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa) izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste. Probak potentzia-mailarik altuena igorri egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreal, normalean, probetan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatuta dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

⁽¹⁾ ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hego Amerika, Iparraldeko eta Hegoaldeko Afrika, Asia-Pazifikoa (Korea izan ezik), Australia.

⁽²⁾ Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Israel.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehienezko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera 1,0 W/kg da. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo erabiltzeko modu batetik bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, "egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrek erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago" (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitatetik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

• LIZENTZIAK

Obigo® Obigo AB-ren marka erregistratua da.



marka komertziala da.



Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira eta TCT Mobile Limited-ek eta horren filialek marka horiek lizentziapean erabiltzen ditu. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.



Testua idazteko T9 modua patente honen edo hauen mende dago: US.Pat.Nos. 5.187, 480, 5.818.437, 5.953.541, 6.011.554, 6.286.064, 6.307.548, 6.307.549 y 6.636.162, 6.646.573; European Pat Nos. 0 842 463 (96927260.8), 1 010 057 (98903671.0), 1 018 069 (98950708.2); eta munduan beste hainbat patente osagarri dago zain.



Java® eta Java®-n oinarritutako marka komertzial eta logotipo guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira, eta AEBetan eta beste herrialde batzuetan dituzte egoitzak.

Informazio orokorra.....

- **Interneteko helbidea:** www.alcatel-mobilephones.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus “TCT Mobile Services” liburuxka edo Interneteko gure gunea.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango duzu posta elektronikoz galderak egiteko.

Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu: www.alcatel-mobilephones.com

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900, 1800 eta 1900 MHz bandetan.



Honen bidez, TCT Mobile Phonesek adierazten du Alcatel OT-1650 telefono mugikorrek 1999/05/EE direktibako oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.

Lapurretaren aurkako babesa ⁽¹⁾


Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea *#06# teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez. II

1 Zure telefonoa



⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

1.1 Teklak



Nabigazio-tekla

Aukera bat berresteko tekla (teklaren erdian sakatuta)



Hartu

Deia egin

Deien erregistroa kontsultatzeko tekla (berriro markatzeko tekla) (labur sakatuta).



Telefonoa pizteko/itzaltzeko tekla (luze sakatuta)

Esekitzeko

Pantaila inaktibora itzultzeko tekla



Ezkerreko funtzio-tekla



Eskuineko funtzio-tekla



Ahots-postontzia kontsultatzeko (luze sakatuta)



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: idazteko metodoa aldatzeko
- Modu prediktibotik (T9) modu arruntera aldatzeko
- Luze sakatuta: sinboloen taulara joatea



Hasierako pantailatik

- Labur sakatuta: #

- Luze sakatuta: bibragailua aktibatzea/desaktibatzea

Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta:  (zuriunea)

- Luze sakatuta: hitza gehitzeko



Kameraren tekla

Labur sakatuta: Argazkia ateratzeko tekla

Luze sakatu: Musika-irakurgailuaren pantailara joan eta erreproduzitu uneko abestia



Labur sakatuta: Play/Pausa

Luze sakatu: Musika-irakurgailuaren pantailara joan eta erreproduzitu uneko abestia



(irakurketa-moduan) Labur sakatuta: aurreko/hurrengo abestia

Luze sakatu: atzera/aurrera joateko tekla

1.2 **Hasierako pantailako ikonoak** ⁽¹⁾



Bateriaren karga-maila.



Bibragailua modua: zure telefonoak dar-dar egiten du baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, alarmen kasuan izan ezik (ikus 43. orrialdea).



Bluetootharen egoera (Urdina – Aktibatuta).



Bluetootharen egoera (audio-gailu bati konektatuta).



Entzungailuak konektatuta.



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: deiak desbideratu egingo dira (ikus 29. orrialdea).



Iratzargailu programatua (ikus 52. orrialdea).



Mezu berria ahots-postontzian.



Erantzun gabeko deiak.



WAP ⁽²⁾ alarmak.



Roaming-a



Memoria-txartela aztertzen ari da.



Amaitu da memoria-txartelaren azterketa.



2. linea ⁽²⁾: aukeratutako linea zein den adierazten du.



GPRS aktibatuta.



Musika irakurgailua aktibatua.



Messenger-a.

⁽¹⁾ Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak orientazio gisa balio dute.

⁽²⁾ Sare-operadorearen arabera.



Estaldura-adierazlea.



USB kablea konektatua.



Mezua jasotzen ari da.



Mezuak bidaltzea.



Isilik modua: zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik (ikus 43. orrialdea).



Irakurri gabeko mezua.



Mezu laburren zerrenda beteta: zure telefonoak ezin du mezua gehiago jaso. Mezuen zerrendara joan behar duzu, gutxienez SIM txarteleko mezu bat ezabatzeko.



Lehentasunezko tarifa-eremuak ⁽¹⁾.



Antena desaktibatuaren modua.



A2DP konektatuta.

1.3

Kanpoko pantailako ikonoak ⁽²⁾



Bateriaren karga-maila.



Estaldura-adierazlea.



Antena desaktibatuaren modua.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.


⁽²⁾ Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak orientazio gisa balio dute.

2 Martxan jartzea

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea


SIM txartela sartzea eta ateratzea ⁽¹⁾

SIM txartela sartu behar duzu deiak egiteko.



Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta kanporantz atera.


Bateria jartzea/ateratzea



Sartu bateria eta lerratu bere lekuan klik egin arte. Gero, itxi telefonoaren tapa. Kendu tapa eta, ondoren, bateria atera.

⁽¹⁾ Egiaztatu zure sare-operadorearekin zure SIM txartela 3 voltetako tentsioarekin bateragarria dela. 5 voltetako txartel zaharrak ezin dira erabili. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Bateria kargatzea




Bateria-kargagailua konektatu

- Kargagailuak 20 bat minutu beharko ditu kargatzen hasteko, bateria guztiz agortuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korrante-hartuneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikoak ez erabiltzea gomendatzen da).
- Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, bateria erabat kargatzea aholkatzen dizugu (3 orduz gutxi gorabehera). Behar bezala funtziona dezan, telefonoa (📶) erabat kargatu behar duzu.



Bateria erabat betetzen denean animazioa gelditu egiten da. Alcatel kargagailuak bakarrik erabili.

Atzeko tapa kentzea



2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu ✕^o tekla telefonoa piztu arte; behar izanez gero, tekleatu PIN kodea eta berretsi OK teklarekin. Hasierako pantaila agertuko da.



PIN kodea zein den ez badakizu edo ahaztu bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin. Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil; eta txartela erabiltzen ez duzunean, gorde leku seguruan.

Sarearen bidez banatutako mezuak bistaritzen badira, erabili OK tekla mezu guztiak bistartzeko edo sakatu eskuineko funtzio-tekla hasierako pantailara itzultzeko.

Telefonoa sarea bilatzen ari denean, pantailan **“Bilatzen/Larrialdia”** agertuko da.

Pizte-pantailatik funtzio hauekara sartzeko aukera ere izango duzu: **“Multi. albuma”**, **“Argazki/bideoa”** eta **“Musika-irakurlea.”**, baita SIM txartela sartu gabe dagoenean ere.

2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu hasierako pantailako ✕^o tekla pantailako.

3

Deiak

3.1 Deiak egitea

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia eta sakatu ... tekla dei bat egiteko. Akatsen bat eginez gero, erabili eskuineko funtzio-tekla zifrak ezabatzeko.

Esekitzeko, sakatu ✕^o tekla.



“+”, “W” (deia zain tonua) edo “P” (etenaldia) sakatzeko, □ + tekla sakatuta izan (karaktere hauek agertuko dira jarraian: 0, +, P, W).

Larrialdiko deia egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu 112 eta sakatu \ (edo zure operadoreak emandako zenbakia) larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik gabe, PIN kodea sartu gabe eta teklatura desblokeatu gabe ere.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu honek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsulta dezakezu postontzi hori. Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze | ∞ tekla.



⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Zure postontzira sartzeko zenbakirik ez baduzu, sartu operadoreak adierazitako zenbakia. Zenbaki hori aldatzeko, erabili **“Nire zbkia”** aukera (ikus 27. orrialdea).



Ahots-postontzia atzerrian erabiltzeko, jarri harremanetan operadorearekin bidaia egin aurretik.

3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, amaitzen duzunean, sakatu  tekla deia amaitzeko.

 ikonoa bistaratzen bada, bibragailua aktibatuta dago: txirrinak ez du soinurik aterako.  ikonoa agertzen bada, bibragailua eta txirrina ez daude aktibatuta.

Telefonoaren tapa irekita badago

- Deiari erantzuteko, sakatu  tekla

Telefonoaren tapa itxita badago

- Deiari erantzuteko, ireki telefonoa (**“Erantzun tapa irekita”** aukera aktibatuta badago, ikus 43. orrialdea).



Deia egin duen pertsonaren zenbakia sareak transmititzen badu bistaratzen da (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

Txirrina isilaraztea

Sakatu eskuineko funtzio-tekla telefonoak jotzean. Sakatu  tekla deiarri erantzuteko.

Dei bat ez onartzea

Sakatu  tekla behin edo eskuineko funtzio-tekla bi aldiz.

3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean

Erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda, antolatzailea, mezu laburrak eta abar erabili ditzakezu, komunikazioa eten gabe,   tekla erabilia.



Itxaroten



Deia martxan



Esku libreko funtzioa

KONTUZ: urrutiratu telefonoa belarritik **“Esku-ask”** aktibatuta duzunean; izan ere, bolumena anplifikatuta egonda, kalteak eragin ditzake entzumenean.



Egutegia



Mezuak



Antolatzailea



Zerbitzuak ⁽¹⁾



Soinu-grabaketa (grabatu uneko deia)

Gainera, telefonoko deia Bluetooth gailura pasa dezakezu konektatuta daudenean.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.


Bolumena aldatzea


Dei batean, bolumena doi dezakezu,  tekla erabilia.

Bi deiri erantzutea

- Bigarren dei bati erantzun (kontsultatu 28. orrialdea eta egiaztatu **“Itxaroten”** aukera aktibatuta dagoela)
- Dei bat egiten ari zalera, bigarren bati deitu ahal izango diozu zure zenbakitik zuzenean.

3.5 Konferentzia ⁽¹⁾

Zure telefonoak une berean zenbait pertsonarekin hitz egiteko aukera ematen du (gehienez 5 solaskide). Dei bikoitza egiten ari bazara, sakatu **“Aukerak”**, hautatu **“Hitzaldia”** eta gero, sakatu **OK**. Hirugarren deia jasotzen duzunean, hartu  tekla sakatuta eta hitz egin solaskidearekin.

Solaskide berriak deian parte hartzeko, sakatu **“Aukerak”**, hautatu **“Hitzaldia hartu berriro”** eta sakatu **OK** tekla. Uneko komunikazioa mozteko, sakatu  tekla.

Konferentzia amaitzeko, sakatu **“Aukerak”** eta aukeratu **“Hitzaldi-amaiera”**.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

3.6 Linea-aldaketa ⁽¹⁾

Zure SIM txartelak bi telefono-zenbaki izan ditzake. “**Dei-memoria**” aukeran, hautatu “**Lerroa aldatu**” eta gero hautatu lehenetsitako linea bat: zure dei guztiak zenbaki hori erabilia egingo. Sarrerako deiak bi lineetatik jaso ahal izango dira.



Lehenetsitako linean programatutako zerbitzuek ez dute eraginik beste linearako hautatutako zerbitzuetan.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4 Menua ⁽¹⁾

Menuko interfazetik zuzenean sar zaitezke funtzioetara, dagokion tekla sakatuta (zenbaki-teklak eta * # eta #☐ teklak) ⁽²⁾.

1. JOKO & APLIKAZ

2. MULTI. ALBUMA

- Nire doinuak
- Nire irudiak
- Nire bideoak
- Nire sorkuntzak
- Deskargatutakoak
- Memoria-txartela
- Memoriaren egoera

3. ERREMINTAK

- Bluetooth
- Antolatzailea
- Alarma
- Kalkulagailua
- Bihurtzailea
- Memoriaren egoera
- Ahots-memoria

4. ARGAZKI/BIDEOA

- Kamara
- Bideo
- Nire sorkuntzak

5. KARPETA

6. MEZUAK

- Mezuak
- Ahots MMSa
- MMS argazkia
- MMS bideoa
- Posta-e
- Messenger-a
- Umail zerbit.
- Doikuntzak

7. DEI-MEMORIA

- Dei-memoria
- Nire zbkiak.
- Fakturazioa
- Deiak

⁽¹⁾ Baliteke zuhaitz-menu honen eta telefonoaren operazioen artean ezberdintasunak aurkitzea, operadorearen arabera.

⁽²⁾ **“Taula”** moduan bakarrik dago eskuragarri.

8. NIRE DOIKUNTZAK

- Soinuak
- Kolorea
- Clamshell
- Gaia
- Antenarik gabeko modua
- Ekualizadorea
- Pantaila
- Erlojua
- Teklak
- Doikuntzak

9. LASTERBIDEAK

*. ZERBITZUAK ⁽¹⁾

- SIM txartelaren zerbitzuak
- Datuak
- Nire One Touch
- Zerbitzu-zenbakiak

0. MUSIKA-ERREP.

- Zerrenda
- Albuma
- Artista
- Jeneroa
- Soinu guztiak
- Orain dela gutxi jokatutakoak
- Gogokoen zerrenda
- Eguneratzea

#. WAP

- Hasiera orr.
- Markak
- Berriki ikusitako orrialdeak
- URLra joan
- Profilak

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

5 Deien erregistroak



5.1 Dei-memoria

Dei-zerrendara sartzeko, sakatu  tekla hasierako pantailan. Lehenengo, nahi duzun ikonoa aukeratu behar duzu:

 Galdutako deiak

 Egindako deiak

 Jasotako deiak

Aukeratu zenbaki bat dei-zerrendatik, eta sakatu **“Aukerak”** funtzio-tekla, aukera hauetarako: **“Ikusi”** (deiaren xehetasunak ikusteko), **“Testu-mezua sortu / Multimedia mezua sortu”** (mezu bat idazteko), **“Gorde zirriborroetan”**, **“Ezabatu”** (hautatutako zenbakia gordetzeko edo ezabatzeke) eta **“Ezabatu dena”** (mezu guztiak ezabatzeke).

5.2 Nire zenbakiak

Idatzi edo aldatu zure telefono-zenbakia edo ahots-postontzira sartzeko zenbakia (normalean, zure SIM txartelean egoten da), eta berretsi **OK** sakatuta.

5.3 Fakturazioa

Aukeran dauden elementuetan, erabili aukera hau:

- Kopurua** • Fakturatutako dei guztien kostu osoa ikusteko, aldatzeko edo ezabatzeko eta unitate telefonikoaren kostua sartzeko zuk hautatutako monetan.
- Iraupena** • Egindako dei guztien iraupen osoa ikusteko edo ezabatzeko.
- GPRS kontagailua** • Fakturatutako datuak trukatzeko bolumenaren kudeaketa (kilobyteak).
- Bip-iraupena** • Aktibatu /desaktibatu dei batean finkatutako maiztasunarekin bip-a emititzeko iraupena (sartu maiztasuna – berretsi **OK** sakatuta).

5.4 Dien doikuntzak ⁽¹⁾

Funtzio honen bidez, hainbat aukeratan sar zaitezke:


5.4.1 Itxaroten

Aktibatu/desaktibatu bigarren dei bat sartzean bip batez jakinarazteko aukera.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

5.4.2 Berrito deitu

Aktibatutako/deaktibatutako edo egiaztatutako ahots-postontzira deiatu edo zenbaki jakinen deiatu desbideratzearen egoera. Aukera hau kasu hauetan aplikatu da:

- Guztiak: deiatu guztiak sistematikoki desbideratzea.  ikonoa agertu da.
- Baldintzapekoa: zure linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez duzunean edo saretik kanpo zaudenean.
- Okupatuta badago, erantzunik ez badago edo sarezik kanpo badago.

5.4.3 Debekatutako deiatu

Aktibatutako/deaktibatutako irteerako eta sarrerako deiatu debekatu. Zenbait aukera daude:

Egindakoak

- Deiatu guztiak
 - Nazioarteko deiatu
 - Nazioartekoak, etxera ezik
- Aukera hau kasu hauetan aplikatu da:
 - Edozein deiatu blokeatu da.
 - Nazioarteko deiatu blokeatu dira.
 - Ordainketa egiten den herrialderako ez beste herrialde guztietarako deiatu debekatu dira.

Jasotakoak

- Deiatu guztiak
 - Roaming
- Aukera hau kasu hauetan aplikatu da:
 - Edozein deiatu blokeatu da.
 - Atzerrian egonez gero, ezin da deirik jasotzea.

Debekatutako deiatu guztiak ezabatu

Pasahitza aldatu (murriztutako deiatu)

- Jatorrizko pasahitza aldatu deiatu debekatuen funtzioa aktibatuzeko.

5.4.4 Linea-aldaketa ⁽¹⁾

1 lineatik 2 linearara aldatu.

5.4.5 Markaketa automatikoa



Deitu eta erantzun ez duenari automatikoki berriz deitzeko aukera aktibatu edo desaktibatu dezakezu.

⁽¹⁾ Zure SIM txartelaren arabera.

6 Karpeta.....



6.1 Agenda kontsultatzea

Hasierako pantailatik agendara sartzeko, sakatu  ⁽¹⁾ tekla edo sakatu **OK** tekla eta aukeratu menuko  ikonoa.

Halaber, zure kontaktuentzako xendra pertsonalizatu ahal izango duzu teklatua pertsonalizatuta (ikus 47. orrialdea).

Lau agenda dituzu:



SIM-txartela



Orokorra



Telefono-agenda



Taldea

Agenda horiez gain, gehienez 5 talde sor daitezke (eta talde bakoitzeko, gehienez, 100 sarrera).

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

Izenak lehen letraren arabera bilatzea

Solaskidearen izena haren izenaren lehen letra sakatuz bila dezakezu.

Erregistroa kontsultatzea

Aukeratu izen bat agendan, eta sakatu **OK** zerrenda kontsultatzeko.

Vcard bat bidaltzea Bluetooth funtzioaren bidez

Hautatu transferitu nahi duzun Vcard-a (**“Aukerak|vCard bidali|Bluetooth bidez”**).

Zure solaskideari deitzea













Izena aukeratu ondoren, sakatu **** tekla. Zure solaskideak zenbaki bat baino gehiago baditu, lehenengo zenbaki bat aukeratu behar duzu (mugikorra, etxea, bulegoa, etab.) **◆** tekla sakatuta. Sakatu **OK** tekla deia egiteko.



Agendako eta antolatzaileko informazioak ordenagailu batekin truka daitezke, PCrako programen paketearekin (ikus 72. orrialdea).

6.2 Erregistroak sortzea

Hautatu agenda erregistroa sortzeko, sakatu **“Aukerak”** funtzio-tekla, hautatu **“Artxiboa osatu”** eta sakatu **OK** tekla.

Ekipoaren agendan kontaktu berri bat sortzean, gutxienez eremu hauetako bat bete behar duzu:  Izena,  Taldea,  Mugikorra,  Etxea,  Deiaren tonua,  Irudia,  Bideoa,  Lana,  Faxe,  E-posta,  Urtebetetzea,  Enpresa.

Eremu batetik bestera igaro zaitetzke  tekla erabilia.



Telefona atzerrian erabiltzen baduzu, gorde agendako zenbakiak nazioarteko formatua erabilia (“+”), atzetik herrialdearen kodea duela (ikus 20. orrialdea).

6.3 Erabilgarri dauden aukerak

“SIM-txartela”, “Orokorra” edo “Taldea” eremuetako izen-zerrendatik, aukera hauetara sartu ahal izango zara ezkerreko funtzio-tekla sakatuta:

Ikuspena

- Erregistro oso bat kontsultatzeko: izena, helbidea, helbide elektronikoa, etab.

Artxiboa osatu

- Erregistro bat sortzeko (izena, zenbakiak, helbidea, helbide elektronikoa, etab.) nahi duzun direktorioan.

Testu-mezua sortu / Multimedia mezua sortu

- Kontaktu bati agendatik SMS edo MMS bat bidaltzeko.

Aldatu

- Erregistroaren edukia aldatzeko: izena, zenbakia, melodia, irudia eta abar

Ezabatu

- Aukeratutako erregistroa ezabatzeko.

Ezabatu dena
Kopiatu guztiak

vCard bidali

Doikuntzak

Taldea sortu

Taldea ezabatu

Lotzea / Ez lotzea

- Aurkibideko erregistro guztiak ezabatzeko.
- Agenda osoa batera SIM agendan edo agenda nagusian kopiatzeko, baldin eta memoria eskuragarri badago.
- Datuak partekatzeko, MMS edo Bluetooth bidez (ikus 50. orrialdea)
- Informazio eta doikuntza gehiago.
- Erregistro-taldea sortu.
- Taldea eta erregistroak ezabatu egingo dira.
- SIM agendan edo agenda nagusian jatorrizko erregistroa aldatzen bada, taldekoa ere eguneratuko da, baina alderantziz ez da gertatuko.

7

Mezuak



Telefono mugikor honen bidez, SMSak, MMSak, postalak ⁽¹⁾, mezu elektronikoak eta BM (Messenger) sortu, aldatu eta jaso ahal izango dituzu.

Multimedia-mezuetan, bideoak irudiak, argazkiak, animazioak, eta doinuak bidal ditzakezu beste mugikor bateragarrietara eta helbide elektronikoetara.

7.1 Mezuak: multimedia/testu-mezua ⁽²⁾

7.1.1 Mezu bat sortzea

Menu nagusitik, hautatu **“Mezuak”** testu/multimedia mezu bat sortzeko.

Mezu bat idatz dezakezu, **“Ereduak”** atalean aurrez definitutako mezua aldatu dezakezu edo mezua pertsonaliza dezakezu, irudiak, argazkiak, soinua, izenburua eta abar erantsita. (MMS bat aldatzean bakarrik). Idazten ari zaren bitartean, hautatu **“Aukerak”** mezuen aukera guztietara sartzeko.

Maiz bidaltzen duzun mezua **Zirriborroak** edo **Ereduak** aukeran gorde ahal izango duzu.











160 karaktere baino gehiago dituen SMSa (idazten ari zaren hizkuntzaren arabera) da karaktere-kopurua) SMS bat baino gehiago izango balira bezala fakturatuko da. Argazkiak eta/edo soinuak dituen SMS mezua ere faktura daiteke mezu bat baino gehiago balira bezala.

⁽¹⁾ Sare-operadorearen eta produktuaren eskuragarritasunaren arabera.


⁽²⁾ Sare-operadorearen arabera.

7.1.2 Jasotako mezuak

Jasotako mezu guztiak (irakurritakoak eta irakurri gabeak) sarrerako ontzi berean gordetzen dira.

Mezuak bistaritzen dituzunean, egoera-ikono hauek bistaratuko dira, mezu motaren arabera:  irakurri gabeko SMSa telefonoan,  irakurri gabeko SMSa SIM txartelean,  irakurritako SMSa telefonoan,  irakurritako SMSa SIM txartelean,  irakurri gabeko MMSa telefonoan,  irakurritako MMSa telefonoan,  mezua hartzen ari da eta  mezua bidaltzen ari da.

SMS/MMS mezuak jasotzea eta irakurtzea

Mezu berri bat jasotzen duzunean, mezu hau bistaritzen da: **“X Mezu berria!”**, txirrinak joko du,  ikonoa agertuko da, eta mezu-kopuruaren berri ematen duen lerroa agertuko da pantailan. Hautatu zenbakia bistaratu den lerroa eta sakatu **OK** zuzenean hasierako pantailatik irakurtzeko.

Mezua irakurri ondoren, aukera hauek dituzu: **Erantzun**, **Berbidali** (mezua beste norbaiti bidaltzeko), **Aldatu**, **Ezabatu**, **Ezabatu dena** eta **Zenbakia erabili / URLa erabili** (zenbakia edo URLa gordetzeko).

7.1.3 Bidali gabeak

Bidali gabeko mezu guztiak.

7.1.4 Bidalita

Bidalitako mezu guztiak.

7.1.5 Zirriborroak

Zirriborroan gordetako mezu guztiak.

7.1.6 Wap abisuak

WAP push mezuak gordetzea

7.1.7 Hutsik

“Harrera-azpila / Bidali gabeak / Bidalita / Zirriborroak” ataletako mezu guztiak ezabatzeko.

7.1.8 Ereduak

Aurrez definitutako mezuen zerrenda bat dago. Hautatu bat, behar izanez gero edita ezazu eta bidali. Aurrez definitutako mezuak ere sor ditzakezu.

7.2 Ahots MMSa

Grabatu ahots-mezuak eta bidali MMS moduan.

7.3 MMS argazkia

Atera argazkiak eta bidali MMS moduan.

7.4 MMS bideoa

Grabatu bideoak eta bidali MMS moduan.

7.5 Posta-e ⁽¹⁾

Bidali eta jaso

- Posta elektronikoaren zerbitzariarekin konektatu, mezuak eskuz bidaltzeko/jasotzeko.

Posta-e idatzi Harrera-azpila

- Mezu elektroniko berri bat sortu.
- Jasotako mezu elektroniko guztiak dituen karpeta.

Bidali gabe

- Bidaltzean errorea izan duten mezuak biltzen dituen karpeta.

Bidalita

- Bidalitako mezu elektroniko guztiak dituen karpeta.

Zirriborroak

- Zirriborro gisa gordetako mezu elektroniko guztiak dituen karpeta.

Eredua

- Lehenetsitako mezuen zerrenda.

Ezabatu dena

- Hautatu duzun karpetako mezu guztiak ezabatu.

Posta-e profila

- Aldatu edo aktibatu posta elektronikoaren doikuntzak.

7.6 Messenger-a ⁽¹⁾

Berehalako mezularitza (IM edo txata) Interneten zabalduen dagoen zerbitzuetako bat da, posta elektronikoaren atzetik. Presentziaren ezaugarriaren bidez erabiltzaileak jakin dezake lagunak noiz dauden konektatuta, eta haiekin komunikatu denbora errealean.

Orain, mugikorrarekin ere txatea dezakezu.

7.6.1 Konexioa

Telefonoa piztean berehalako mezularitza automatikoki hasteko ezar dezakezu. Halaber, telefonoan gordetako erabiltzaile-datuekin zerbitzura automatikoki konektatzeko aukera duzu.

⁽¹⁾ Bertsioaren arabera, baliteke aukera hauek erabilgarri ez egotea.

7.6.2 Presentzia

IMaren bidez, erabiltzaileak beste erabiltzaile batzuen konexioaren egoeraren edo presentziaren berri izan dezake.

Presentziaren ereduan sarearen egoerari buruzko informazioa ere sar daiteke (on line edo deskonektatuta), bai eta erabiltzailearen egoera zehatzari buruzko informazioa ere (eskura edo hartuta).

Berehalako mezularitzak babes-funtzio garrantzitsua du, eta, horren bidez, edozein unetan debeka dakiokoe sarbidea erabiltzaile bati. Debekua duen erabiltzaileak ezin du bere presentzia ikusi edo ustekabeko berehalako mezurik bidali (spim: spam, IMen kasuan).

Gainbegiratu batean, zure lagunen presentzia ikus dezakezu, Buddy list-i esker: zurekin txateatzea nahi duzun lagunen zerrenda. Zerrenda hori kudea dezakezu, kontaktu berri bat erantsita (telefono-zenbakia edo messenger-eko ID), edo kontaktuetan bilatuta.

Halaber, kontaktu-taldeak sor ditzakezu kontaktuen zerrenda ongi kudeatzeko.

7.6.3 Beti konektatuta

Mugikorraren IMak PC baten bidez funtzionatzen du. IM mezuak jasotzen segi daiteke, baita IMaren aplikazioa pantailan bistaratzen ez denean ere. Egoera-barran dagoen IMaren ikonoak adierazten du IMA piztuta edo itzalita dagoen. Ikonoak adierazten du:

- konektatuta eta erabilgarri dagoela,
- konektatuta eta okupatuta dagoela,
- irakurri gabeko IMak daudela

Ikonorik bistaratzen ez bada, esan nahi du ez zaudela konektatuta.

7.6.4 IMak jasotzea eta irakurtzea

IMaren jakinarazpen bat jasotzen duzunean, aukera hauek daude (IM berria, informazio-mezu berria),

- IM mezu bat bistaratzen da: “Honen IM bat jaso duzu:...”, “Honen gonbita jaso duzu: ...”
- IMko alerta akustiko zehatz bat duzu (seinale akustiko hori aldatzeko edo desaktibatzeko, joan IMen parametroen atalera, beherako),
- egoera-barrako IMaren ikonoa eguneratu egiten da
- lagunekin elkarrizketa izateko zenbakia duen linea (IM kopurua edozein dela ere) edo informazio-mezuak deiak jasotzeko/egiteko egoeran. Hautatu zenbakia bistaratu den lerroa eta sakatu OK zuzenean hasierako pantailatik irakurtzeko.

Halaber, “chatroom” pribatua sor dezakezu, eta konektatuta dauden lagunei gonbidatu, elkarren artean “txateatzeko”.

7.6.5 IMaren parametroak

IMaren zerbitzariko parametroak wap profilak bezala egunera ditzakezu.

7.7 Ahots-postontzia

Jasotako ahots-mezu guztiak.

7.8 Doikuntzak

7.8.1 Testu-mezua

Doikuntzak

- Profilak SIM txarteletik zuzenean berreskura daitezke. Halaber, zure perfila sortu dezakezu.

- Doikuntzak**
 - Jasotze txostena, sarbidea arraposturako aktibatua/desaktibatua. Erantzuna ⁽¹⁾ aukerak erantzuna erakusten du.
- Memo-egoera**
 - Telefonoan behar adina memoria libre.
- Gordeta**
 - Mezuak biltegiratzeko toki lehenetsia aukeratu SIM txartelean edo telefonoan.
- Gogokoena**
 - Hobetsitako titularra.

7.8.2 Multimedia mezua

- Sortu**
 - Editatzeko modua, irudiaren tamaina eta sinadura zehaztu.
- Bidali**
 - Indarrean egongo den aldia, irakurri izanaren jakinarazpena eta abarren parametroak ezarri.
- Berreskuratu**
 - Etxeko sarearen, roaming-sarearen eta abarren parametroak ezarri.
- Filtroak**
 - Iragazkiaren parametroak ezarri.
- Profilak**
 - Segi wap konexioa instalatzeko prozedura berbera.
- Memori. egoera**
 - Telefonoan behar adina memoria libre.

7.8.3 SMS CB ⁽¹⁾

- Harrera-mota**
 - Sarean banatutako SMSak jasotzeko.
- Mezua irakurri**
 - Jasotako mezua gorde.
- Hizkuntzak**
 - Hizkuntzak hautatzea.
- Kanal-doikuntzak**
 - Kanalak gehitzea/aldatzea

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.



8 Nire doikuntzak

Hasierako pantailatik, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko.

8.1 Soinuak


8.1.1 Erabil ditzakezun funtzioak


Soinu-parametroak aldatzeko, hautatu dauden aukerak ◀▶ tekla erabiliz:

 Aukeratu doinu bat  tekla erabilita eta berretsi OK tekla sakatuta (ikus 68. orrialdea).

 Modua (arrunta, diskretoa, bibratzailea, etab.).

 Doitu bolumena  teklarekin.

 Aukeratu teklen tonu-mota.

 Hautatu mezu berriei dagokien doinua.


 Hautatu zita edo alarma berriei dagokien doinua.

 Pizteko bip-a.

 Deskonektatzeko bip-a.

 Aukeratu soinu bat telefonoaren irekierarekin/jitxierarekin lotzeko.

8.1.2 Modua

Telefonoaren soinuaren moduan aukera hauek dituzu: Arrunta, Diskretoa (bip batzuen ondoren, txirrina), Bibratzailea (soinu guztien ordez bibragailuak jotzen du), Bibratzailea + doinua (bibratzea eta gero soinua), Bip + bibratzailea, Isiltasuna (alarmen kasuan bakarrik dago soinua,  ikonoa bistaratzen da).



Doinuaren bolumena igo egiten da pixkanaka.

8.2 Kolorea

Funtzio horren bidez, telefonoaren estilo grafikoa eta kolorea pertsonaliza ditzakezu.

8.3 Clamshell

8.3.1 Tapa irekita erantzutea

Telefonoa irekitzeko tapa jasotzean, deiarri automatikoki erantzutea nahi duzun aukeratu dezakezu.

8.3.2 Tapa ixtean dituzun aukerak

Telefonoa ixtean abian dagoen aplikazioa aktibatuta izan edo eten nahi duzun aukeratu dezakezu.

8.4 Gaia

“**Giroak**” menuan, zure nahien arabera pertsonaliza dezakezu telefonoa. Pertsonalizatze-elementu bat baino gehiago alda ditzakezu aldi berean.

Lehen aldiz erabiltzean, lehenetsitako **gaia** aktibatuko da.

Gai bat hautatzen duzunean ere, gai hori osatzen duten elementuak banan-banan alda ditzakezu. Edozein unetan aktiba daiteke berriro gai bat.

Gaia aldatzen denean, instalazio-pantaila bistaratzen da zortzi elementuak instalatu arte.

Ingurunea instalatzeko prozesua geldiarazi egin daiteke, dei bat jasotzen bada edo eskuineko funtzio-tekla sakatzen bada. Kasu horretan, lehendik hautatuta zegoen Ingurunea geratzen da ezarrita.



Ingurunea instalatzeko prozesua geldiarazi egin daiteke, dei bat jasotzen bada edo eskuineko funtzio-tekla sakatzen bada. Kasu horretan, lehendik hautatuta zegoen Ingurunea geratzen da ezarrita.

8.5 Antenarik gabeko modua

Antena desaktibatuaren moduan dagoenean –horren arabera, ezingo da dei- eta mezu-funtziorik erabili–, musika-erreprodukzioaren denbora luzatu ahal izango da.

8.6 Ekualizadorea

Aurrez ezarrita dauden musika-estiloak hauta eta egokitu ditzakezu.

8.7 Pantaila

8.7.1 Hasierako pantaila

Telefonoa piztean agertuko da hasierako pantaila.

Hasierako pantailatik nabigazio-tekla erabilia edo **OK** sakatuta eta pantailan bistaratutako ikonoak hautatuta sar zaitezke funtzio nagusietara ⁽¹⁾.

“Pant. nagusia” aukeratzen duzunean, pertsonalizatu egin dezakezu zure telefonoan lehenespenez agertzen den irudia edo animazioa aldatuta.



Elementuren bat jasotzen duzunean (deiren bat, SMS/MMS bat, jakinarazpenak eta abar), ikonoa, mota eta jasota elementu-kantitatea agertuko dira hasierako pantailan; hala, zuzenean kontsulta ditzakezu.

8.7.2 Kanpoko pantaila

Telefonoaren kanpoko pantailak edozein gertaeraren berri emango dizu. Doikuntzak ataletik pertsonaliza dezakezu kanpoko pantaila.

8.7.3 Pantaila-babesa

Aukera hori aktibatuta, pantaila-babesa bistaratzen da hasierako pantailaren ondoren. Hautatu irudi, animazio edo diapositiba bat pantaila-babes gisa.

⁽¹⁾ Operadorearen arabera

8.7.4 Pizteko/jitzaltzeko pantailak ^[1]

Telefonoa piztean bistaratzen diren ongietorriko mezua, animazioa edo irudia pertsonaliza ditzakezu.

Telefonoa itzaltzeko pantaila ere pertsonaliza dezakezu, irudi bat edo animazio bat hautatuta.

8.7.5 Menua ikusi

Taula

- Menu nagusiko ikono guztiak pantaila bakarrean agertzen dira.

Irudiak

- Pantaila osoko irudiak agertzen dira bata bestearen atzetik.

Zerrenda

- Menu nagusiak bistaratzen dira zerrenda gisa.

8.8 Erlojua

Eguna eta ordua doitu ditzakezu, 12/24 orduko formatua kontuan hartuta. Egunez argia aurrezteko funtzioa ere ezar dezakezu.

8.9 Teklak

8.9.1 Funtzio-teklak

Tekla hauen funtzioak aurrez definituta daude, eta aldatu egiten dira telefonoaren modeloen arabera (operadorearen zerbitzuak, jokoetarako sarbidea edo jokoak eta aplikazioak). Pertsonalizatu egin ditzakezu ^[2], tekla bakoitzarentzat nahi duzun funtzioa aukeratuz.

^[1] Modeloaren arabera

^[2] Sare-operadorearen arabera.

8.9.2 Teklatua

Teklak pertsonalizatzeko funtzioari esker, hasierako pantailatik zuzenean solaskide bati dei diezaiokezu edo funtzio batera sar zaitezke.

Tekla bat programatzeko, hautatu **“Teklak”** eta programatu nahi duzun tekla.

- **“Markaketa bizkorra”**: aktibatu aukera hori zenbakiak eta kontaktuak gordetzeko. Hala, zuzenean deitu ahal izango duzu.
- **“Teklak”**: aktibatu aukera hori funtzioak programatzeko.

8.10 Beste doikuntza batzuk

8.10.1 Teklatua automatikoki blokeatzea

Teklatua blokeatzea

Aurreko tapako hiru musika-teklak automatikoki blokeatuko dira telefonoa itxi ondoren.


Teklatua desblokeatzea

Ireki karkasa tolesgarria.

8.10.2 Atzeko argia

Distira murriztu dezakezu bateriak hobeto funtzionatzeko eta energia aurrezteko, denbora-tarte jakin bat jarduerarik gabe zaudenean. Iraupena ere pertsonaliza dezakezu: berehala, 10 s, 30 s eta 1 min.

8.10.3 Hizkuntzak ⁽¹⁾

Mezuak bistartzeko hizkuntza (aukeratu  teklarekin). “**Automatikoa**” aukerarekin, abonatura zauden sareko hizkuntza hautatzen da (zure telefonoan hizkuntza hori erabilgarri badago).

8.10.4 Hiztegia

Telefonoan hiztegia duzu. Hiztegi horretan zuk nahi dituzun hitzak sar ditzakezu; baita testua idazteko sistema prediktiboak iradokitakoak ere. Zure hiztegia kontsultatzean, hitzak sartu, aldatu edo ezaba ditzakezu “**Aukerak**” funtzio-tekla erabilia.

8.10.5 Idazteko-modua ⁽²⁾

Kontsultatu “Testu sartzeko modua” kapitulua, 73. orrialdean. Karaktere berezien taulaz gain (adibidez, zirilikoa, txinera), telefonoan testua idazteko hainbat modu dituzu. Funtzio honi esker, mezu laburrak idatz ditzakezu eta izenak sar ditzakezu karaktere bereziekin zure agendan.

8.10.6 Segurtasuna

SIM blokeoa

- Kodea aktibatuta badago, SIM txartelaren babes-kodea eskatuko zaizu telefonoa pizten duzun bakoitzean.

PIN

- PIN kodea aldatzea.

PIN2

- Kodea aktibatuta badago, babes-kodea beharko duzu SIM txartelaren funtzio jakin batzuetarako (Faktura/kostua/FDN edo markatze finkoko zenbakiak eta abar) Hau hautatu, berri batekin ordezkatzeko (4 eta 8 digitu artean).

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Hizkuntzaren arabera.

Telefonoaren kodea aktibatzea

Pasahitza aldatzea

FDN

- Kode hori aktibatuta badago, telefonoa pizten den bakoitzean eskatuko da.
- Telefonoaren pasahitza aldatzea; aurrez ezarritakoa 1234 da.
- Telefonoa “blokeatzeko” aukera ematen du, zenbaki batzuk soilik edo aurrezenbaki jakinen bat duten zenbakiak soilik markatu ahal izan daitezten. Funtzio hori aktibatzeke, 2. PIN kodea eskatuko da.

8.10.7 Sareak

Sarea aukeratzea

- Automatikoa
- Eskuz

- Hautatutako aukeraren arabera, sarearen bilaketa honela egingo da:
- Azkena erabili zen sarea bilatzen du lehenengo.
- Sarea erabiltzaileak aukeratzen du.

Sare gogokoan

- Konekatu nahi den sareen zerrenda, lehentasun-ordenaren arabera (eguneratu zerrenda hau **OK** teklarekin).

GPRS konexioa ⁽¹⁾

- Beharrezkoa denean
- Beti

- Bi aukera daude.
- GPRS modu aktiboa konexio-baldintzen arabera.
- GPRS modu aktiboa etengabe.

⁽¹⁾ Sarearen erabilgarritasunaren arabera.

9

Erremintak



9.1 Bluetooth[®] ⁽¹⁾

Sartu funtzio horretara, menu nagusiko **“Erremintak”** eta, gero, **“Bluetooth”** aukeratuta.

Zure telefonoa Bluetooth aparatu batekin erabiltzeko, jarraitu urrats hauei:

- Sinkronizatu eta erregistratu aparatura zure telefonoan.
- Hautatu esku askeko moduan erabiltzeko. Bluetooth audio-gailu bakarra (zure Bluetooth esku askeko eramangarria edo autoko Bluetooth kita) konekta daiteke komunikazioan.

Bluetooth aparatura sinkronizatzea eta erregistratzea

Bluetooth funtzioa aktibatzeko, hautatu **“Erremintak\Bluetooth\Aktibazioa\Aktibatuta”** aukera. Ondoren, sartu **“Perif.-Zerrenda”** menuan, konekta daitezkeen Bluetooth aparatuak bilatzeko, eta hautatu zerrendan sinkronizatu nahi duzun aparatura. Bluetooth gailuak teklaturik ez badu, sartu lehenetsitako pasahitza zure telefonoan erregistratzeko. Teklatua badu, pasahitz berdina sartu behar duzu telefonoan eta gailuan, azken hori erregistratzeko.

Zerrendan, hautatu **“Aukerat.”** tekla konektatzeko/deskonektatzeko, berriz izendatzeko, aparatu berriak bilatzeko edo zerrendatik aparatu ezezagun bat ezabatzeko.



Ez ahaztu zure Bluetooth aparatura piztea eta sinkronizatzeke modua aktibatzea zure telefonora sinkronizatzen duzunean.

⁽¹⁾ Bluetooth OT-BM81 entzungailuak erabiltzea gomendatzen dizugu, OT-V670-rekin erabiltzeko bateragarriak baitira.

Erabil ditzakezun funtzioak

- Datuak transmititzea** • Beste bluetooth gailu batekin fitxategiak trukatzeara.
- Deiak jasotzea/egitea** • Esku askeko Bluetooth eramangarri batekin telefono-dei bat egitea edo jasotzea.
- Musika entzutea** • A2DP profilarekin bateragarria.

Doikuntzak

- **Ikusgarritasun:** aukeratu zure telefonoa ezkutatuta (**“Ezkutatuta”**) edo guztiek ikusteko moduan (**“Denei erakutsi”**) utzi nahi duzun.
- **Nire telefonoaren izena:** gainerakoek ikusiko duten zure telefonoaren izena aldatzeko.



Aktibatu beti Bluetootha zure telefonoan Bluetooth aparatu batera konektatu aurretik. Ez ahaztu Bluetootha aktibatzeak bateriaren iraupena aldatuko duela pixka bat.

Bluetooth teknologiari esker, eremu txiki bateko Bluetooth aparatu guztiak konekta daitezke haririk gabe. Egiatzatu esku askeko Bluetooth eramangarria edo autoko Bluetooth kita estaldura horren barruan daudela, eta **“Ikusgarritasun”** aukera aktibatuta dagoela.

Zure telefonoa bateragarria da Bluetooth® 1.1, 1.2 eta 2.0 bertsioekin

9.2 Antolatzailea

“Erremintak” aukeratik menuan sartzean, hilen araberako egutegi bat aurkituko duzu zure bilera eta hitzordu garrantzitsuak jasotzeko. Gertaerak dituzten egunak kolorez agertuko dira.

Erabilgarri dauden aukerak:

Osatu

- Hitzordu bat sortzeko.

Hitzorduak ikusi

- Ikusi sortutako hitzordu guztiak.

Datara joan

- Sartu nahi duzun data, eta berehala nabarmenduko da.

9.3 Alarma

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du berriz jotzeko funtzioarekin. Bost alarma konfiguratu ditzakezu, eta berriz jotzea nahi duzun edo ez aukeratu.


Errepikatu

- Berriz jo dezake (aurrez definitutako aukera)/ Egunero/Egunak.

Errepikatu

- Alarmak berriz joko du denbora-tarte jakinetan.

9.4 Kalkulagailua

Funtzio hau erabil dezakezu oinarrizko kalkuluak egiteko. Eutsi sakatuta  teklari koma hamartarra lortzeko. Berretsi **OK** teklarekin edo ezkerreko funtzio-teklarekin.

9.5 Bihurgailua

9.5.1 Unitate-aldatzailea

Pisu-eta luzera-aldatzailea erabil dezakezu, ◀▶ teklekin aldatu nahi duzun unitatea aukeratuta. Gero, sakatu ▼ zifrak sartzeko. Azkenik, egiaztatu OK teklarekin edo ezkerreko funtzio-teklarekin.

9.5.2 Moneta-bihurgailua

Moneta-aldatzailearekin, funtzio hauek egin ditzakezu:

- moneta bat zuzenean euro bihurtu, eta alderantziz ⁽¹⁾.
- nazioarteko monetak aldatu. Bi monetak ▶◀ teklen bidez aukeratu behar dira. Dagokion aldaketa sartzeko eskatuko zaizu.

9.6 Memoriaren egoera

Telefonoan eta memoria-txartelean (erabiliz gero) erabiltzen ari den espazioa eta libre dagoena adierazten ditu.

9.6.1 Telefonoaren memoria

Libre dagoen memoria ikustea.

Telefonoaren memoria hainbat funtziotarako erabiltzen da: agenda, ataza-antolatzailea, mezuak, ahots-mezuak, irudiak, doinuak, jokoak, aplikazioak eta bideoak.

(1) Europako moneta zaharrentzat, moneta-aldatzaileak 1998/12/31n ezarritako eurotarako aldaketak hartzen ditu, zeinak aldatze-arau ofizialen arabera erabiltzen baitira.

9.6.2 Memoria-txartela (MicroSD txartela)

Ikusi zure miniSD txartelean duzun lekua.



Fitxategi handiak (bideoak, abestiak eta abar) MicroSD txartelean gordetzea gomendatzen dugu. 35 karaktere arteko fitxategi-izenak ikusi ahal izango dira.

9.7 Ahots-grabazioa

Funtzio honekin dei bat grabatu ahal izango duzu, hizketan ari zaren bitartean **“Ahots-memoria”** aukeratuta. Soinu bat erregistratzeko, hautatu **“Ahots-memoria”** eta, ondoren, **“Grab. berria”**.

10. Nire lasterbideak.....

Sartu programatuta dauden zuzeneko sarbideetara.

Zuzeneko sarbide berriak programatzeko, hautatu **“Lasterbideak”** funtzio edo direktorio baterako edo WAP gogokoenetarako sarbide azkarra sortu nahi izanez gero.

11. WAP



11.1 Hasiera orria

Hautatu WAP nabigatzailea aurrez definitutako profila duen hasierako orriarekin.

11.2 Gogokenak

Sartu zure web orri gogokenetara.

11.3 Azken orriak

Azken aldian nabigatzen aritu zaren orriak.

11.4 URLra joan

Sartu WAP web-orriaren URL helbidea.

11.5 Profilak

11.5.1 Profila aldatu

Aldatu dagoen profila edo sortu profil berri bat.

11.5.2 Nabigatzailearen aukerak

Ezarri itzarote-aldietarako eta irudien deskarga automatikoetarako parametroak.

11.5.3 Push mezuen ezarpenak

Aktibatu edo desaktibatu WAP zerbitzuko mezuak jasotzeko aukera.

11.5.4 Cachea ezabatzea

Hustu telefonoaren cache memoria.

11.5.5 Cookieak ezabatzea

Ezabatu web-orriko cookieak.

11.5.6 Ziurtagiriak kautotzea

Konfiantzazko web-orrien ziurtagiriak.

12 Multimedia-bilduma

Telefonoan edo memoria-txartelean multimedia bilduman jasotako audio-eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke.

12.1 Nire soinuak

Doinu bat hauta dezakezu pizteko/jitzaltzeko pantailarekin, sarrerako deiekin, mezuen jakinarazpenekin, pizteko/jitzaltzeko doinuarekin edo alarmekin edo ataza-antolatzailearekin lotzeko.

“**Nire doinuak**” albumak karpeta hauek ditu ^[1]:

- Musika: gaien hautaketa osoa
- Doinuak: dei-tonu gisa ezar daitezkeen melodiak
- Grabatutakoak: grabatutako soinu guztiak,
- Orokorra telefonoan edo memoria-txartelean gordetako audio-fitxategi guztiak ditu.



DRM: soinuak eta irudiak hedatzeko aukera ematen duen eta horiei lotutako copyright-a babesten duen eskubide digitalen administrazioa. DRM kontagailuan oinarritutako fitxategiak eta eskubideak iraungita dituzten fitxategiak ez dira automatikoki erreproduzitu zerrenda zabaldutakoan.

^[1] Karpetan izenak ezin dira aldatu. Baina, kasu batzuetan, karpeta hauetako elementu batzuk alda, ezaba eta gehitu ditzakezu.

12.2 Nire irudiak

Irudi edo argazki bat hauta dezakezu, eta hasierako pantaila gisa edo pizteko/jitzaltzeko pantaila gisa erabili. Aldatu, MMS edo Bluetooth bidez bidali edo direktorio bateko kontaktu bati lot dezakezu.



Irudiak alfabetikoki agertuko dira.

12.3 Nire bideoak

“Nire bideoak” albumean, telefonoan edo memoria-txartelean sartutako edo deskargatutako bideo guztiak daude.



Nire soinuak, Nire irudiak eta Nire bideoak albumetan: PCaren bidez aurrez definitutako fitxategi batean transferitu eta musika-erreproduzigailuak ezagutzen dituenak bakarrik gordeko dira. Hala ere, beste agenda batzuetara kopiatutako fitxategiak hemen daude: **“Multi. albuma|Memoria-txartela”**.

12.4 Nire sorkuntzak

Mugikorrean erregistratutako argazki guztiak gordetzen ditu funtzio honek.

12.5 Fitxategi ezezagunak

Gorde bateragarria ez den formatuko fitxategiak.

Miniaturazko irudiak aurrebista gisa bistaritzen dira. Gainera, **“Aukerak”** funtzioa erabil dezakezu fitxategi bat baino gehiago hautatzeko.


12.6 Memoria-txartela

Memoria-txartelean gordetako fitxategi guztietara sar zaitezke.



Lehenengo aldiz memoria-txartel bat sartzean, arakatu egingo du, eta aurrez definitutako karpetak sortuko dira.

Memoria-txartela sartzea: Ireki gomazko topea, jarri MicroSD txartela urrekoloreko aldea behera begira duela, eta sartu zirrikitan.



Memoria-txartela ateratzea: Ireki gomazko topea, eta egin bultza memoria-txartelari blokeatuta geratu arte. Atera MicroSD txartela eta itxi topea.

Erabilgarri dauden aukerak

Karpeta bat sortzea • Karpeta gehiago sortzeko.

Artxiboa ezabatu • Karpetak ezabatzeko.

Izen berria jarri karpetari • Karpetaren izena aldatzeko.


Karpeta hustu • Karpeta bateko fitxategi guztiak ezabatzeko.

Memoria-txartela • Formateatzeko edo memoriaren egoera zein den jakiteko.

12.7 Soinuen, irudien eta bideoen kudeaketa

Hautatutako elementuaren arabera, funtzio hauetan sartuko zara:

Ikuspena

- Hautatutako irudia ikusteko. Karpetako irudi guztiak diapositibatan ikusi nahi badituzu, luze sakatu  uneko irudian.

Jokatu

Bidali ⁽¹⁾

- Hautatutako bideoa erreproduzitzeko.
- Audioa/irudia/bideoa bidaltzeko.

Ezabatu

- Hautatutako audioa/irudia/bideoa ezabatzeko (ez zaie aplikatzen telefonoak berarekin dakartzan elementuei).

Nola ezarri

- - Irudia -> hasierako pantaila, pantaila-babesa pizteko/itzaltzeko pantaila, kontaktu bati esleitu.
- - Soinua->doinua, mezuaren bip-a, piztu/itzali, kontaktu bati esleitu.
- - Bideoa->pantaila-babesa, piztuta/itzalita edo kontaktu bati esleitu.

Aldatu

- Irudi bat aldatzeko ⁽²⁾.

Deskargatu

- Elementu berriak deskargatu.

Izen berria ipini

- Audioaren/jirudiaren/bideoaren izena aldatzeko.

Nola ezarri

- Fitxategiak izenaren, motaren, iraupenaren eta tamainaren arabera sailkatzeko.

Memoria-txartela telefonora mugitu

- Fitxategi bat produktuaren memoriatik memoria-txartelera eramateko eta alderantziz.

⁽¹⁾  marka duten fitxategiak ezin dira bidali.

⁽²⁾ Ezaba daitezkeen irudiei baino ez zaie aplikatzen, baina ez copyright duten fitxategiei.

Propietateak

Aktibatu

Kopiatu telefonoan/ memoria-txartelean

Ezabatu

Ezabatu guztiak

Zerrenda gisa ikustea

Diaporama ⁽¹⁾

Harrapaketa

Hautatzea / Hautaketa kentzea

Guztia hautatzea / Hautaketa osoa kentzea

Markatuta fitxategiak ezabatzea

- MP3 fitxategi bateko ID3 fitxaren edukiaren zati bat bistaratzeko.
- DRM fitxategiaren aukera.
- Fitxategia telefonoaren memorian edo memoria-txartelean kopiatzeko.
- Fitxategiak ezabatzeko, telefonoak berarekin zekarzkieinak izan ezik.
- Fitxategiak ezabatzeko, telefonoak berarekin zekarzkieinak izan ezik.
- Fitxategiak zerrendan ikusteko.
- Irudiak bata bestearen atzetik bistaratzeko.
- **“Argazki/bideoa”** funtziorako zuzeneko sarbidea.
- Klik batez fitxategi bat markatzeko/demarkatzeko, eragiketa gehiago egin ahal izateko.
- Klik batez fitxategi guztiak markatzeko/demarkatzeko.
- Markatutako fitxategi guztiak kentzen ditu.

12.8 Formatuak eta bateragarritasuna ⁽²⁾

- Soinuak: mp3, m4a, aac, midi, wav, amr
- Irudiak jpg, gif
- Bideoak 3gp, mp4

12.9 Memoriaren egoera

Ikus 53. orrialdea.

⁽¹⁾ Ezaba daitezkeen irudiei baino ez zaie aplikatzen, baina ez copyright duten fitxategiei.

⁽²⁾ Produktuaren eta operadorearen arabera.


13 Argazkiak eta bideoak.....


Zure mugikorrek VGA kamera du, eta harekin argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, eta haiekin hainbat gauza egin:

- **“Multi. albuma”** aukeran gorde.
- multimedia-mezu batean (MMS) bidali beste mugikor batera edo helbide elektronikoko batera,
- hasierako pantaila pertsonalizatu (ikus 45. orrialdea),
- direktorioko kontaktu bati sarrerako irudi gisa esleitu,
- datu-kable bidez edo microSD txartel bidez ordenagailura transferitu,
- argazkiak aldatu, markoak, zigiluak eta abar gehituta (ikus 65. orria).

13.1 Sarbidea


Hasierako pantailatik funtziora joateko:

- sakatu  tekla.
- sakatu **OK** tekla, menura joateko, eta hautatu  ikonoa.

Kamerara menu bidez joaten bazara, erretratu-moduan egongo da.  tekla bidez joaten bazara, modu etzanean egongo da.

13.2 Kamera

13.2.1 Argazki bat nola atera, gorde edo ezabatu

Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Jarri objektua edo paisaia bisorean, eta sakatu **OK** edo  argazkia ateratzeko. Hala, irudiak automatikoki gordeko dira. Irudia gorde nahi ez baduzu, sakatu eskuineko **“Ezabatu”** funtzio-tekla, eta zuzenean ezabatuko da.

13.2.2 Doikuntzak fokatze-moduan

Argazkia egin aurretik, doikuntza batzuk egin ditzakezu zuzeneko sarbide hauek erabiliz:

Hautatutako aukeren barra:

- Irudiaren tamaina
- Kalitatea
- Zurien balantzea
- Kaptura-modua
- Irekidura
- Tenporizadorea
- Eszena modua

Ezkerreko funtzio-tekla: Aukerak

- 1 ∞ tekla: **Kalitatea:** Altua/Estandarra/Ekonomikoa
- 5 jkl tekla: **Zurien oreka**
- 7 pqrs tekla: gehitu markoa (128x160 tamainarako bakarrik dago)
- 8 tuv tekla: **Kolorea:** koloretan edo zuri-beltzean
- * + tekla **Tamaina:** 640x480, 320x240, 128x160, 120x160

Nabigazio-tekla:

- OK : argazkia egin
- Erretratu-moduan
- ◀▶ esposizioa gehitzeko edo gutxitzeko
- ▲ : Zooma gerturatzeko edo urruntzeko
- Paisaia-moduan
- ◀▶ : Zooma gerturatzeko edo urruntzeko
- ▼ esposizioa gehitzeko edo gutxitzeko

Eskuineko funtzio-tekla: Itzultzeko, bigarren mailako menuen aurreko pantailara itzultzen da

- ≡ def tekla: **Harrapaketa:** 1/3/5 argazki/ Itzali/ Mosaikoa
- 6 mno tekla: **Eszena:** Autofocus/Gaua
- ☒ tekla: ikono guztiak ezkutatzeko / bistaratzeko
- 0 + tekla **Tenporizadorea:** 5/10/15 seg. / Desaktibatuta

Argazkiak egiteko pantailatik, joan **“Aukerak”** funtzio-teklara, aukera hauetara joateko: **“Tamaina”**, **“Harrapaketa”**, **“Kalitatea”**, **“Tenporizadorea”**, **“Zurien oreka”**, **“Kolorea”**, **“Markoa sartu”**, baita hauetara joateko ere:

- Multimed. Album** • Multimedia-albumaren funtziora joateko.
- Non gorde** • Kokapena hautatzeko, MicroSD txartela sartu bada.
- Baloreak berrerrh.** • Doikuntza guztiak berriro ezartzeko aurrez definitutako parametroen arabera.
- Teklak** • Zuzeneko sarbideko tekla guztien zerrenda.

13.2.3 Argazkia atera ondorengo aukerak

Argazkia atera ondoren, bidal dezakezu (**Bidali**), kontaktu bati edo hasierako pantaila bati esleitu eta abar, edo ezabatu (**Ezabatu**), aldatu (**Aldatu**) (ikus gero), edo **Multi. albuma** atalera joan.

13.2.4 Irudiak aldatzea

Joan **“Álb.Multimedia/Mis creaciones”** aukerara argazkia atera ondoren, eta hautatu **“Aldatu”**.


13.3 Bideoak

Iraupen mugagabeko bideoak graba ditzakezu, betiere, bateria eta nahikoa memoria baduzu.



Arren gomendatzen dizugu aurrez definitutako karpeta **“Memoria-txartelera”** aldatzea, egiten dituzun argazkiak eta bideoak gordetzeko.

13.3.1 Bideoaren doikuntzak fokatze-moduan



5 jhi tekla: **Zuri balantzea:**
Autofocus, egun-argia,
barrukoa, fluoreszentea,
hodeitsu eta inkandeszentea

+ tekla Audio-erregistroa
pizteko/jitaltzeko

- ◀ ▶ : esposizioa zuzentzeko
- ▲ ▼ : zooma gerturatzeko
edo urruntzeko

8 tuv tekla: **Kolarearen
modua:** normala, grisen
eskala, sepia, berde sepia,
urdin sepia, etab.

tekla **Grabazioaren
iraupena:** 15 s, 30 s, 60 s eta
mugarik ez

13.3.2 Fokatze-modua

“**Bideoa**” funtzioan sartzean, fokatze-moduan zaude. Erabili mugikorraren pantaila bisore gisa eta sakatu “**Aukera**” funtzio-tekla zurien balantzea doitzeko, soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko, kolorea hautatzeko, “**Multimedia**” edo “**Kamara**” aukeretara sartzeko, eta lehenetsitako karpeta aldatzeko.

13.3.3 Grabatze-modua

Doikuntzak hautatutakoan, bideoklipa grabatzen hasteko, sakatu **OK** edo  tekla.



Grabatze-moduan zaudela dei bat jasotzen baduzu, bideoaren grabazioa eten egingo da, eta gorde nahi duzun galdetuko dizu.

13.3.4 Erreproduzitze-modua

“**Nire sorkuntzak**” zerrendan, sakatu “**Aukerak**” bideoa **Erreproduzitzeko**, eta aukeratu **Zerrenda** (miniaturen ikuspegian), **Bidali**, esleitu kontaktu bati edo hasierako pantailari (**Nola ezarri**).

Sakatu  teklak erreprodukzio-abiadura doitzeko.

Sakatu   tekla erretratu-ikuspegitik paisaia-ikuspegira igarotzeko.

14. Musika-irakurgailua



Sartu funtzio horretara menu nagusian **“Musika-errep.”** hautatuta edo, zuzenean, ►|| tekla luze sakatuta. Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu.

14.1 Musika-irakurgailua ⁽¹⁾

Musika-fitxategietara sartu ahal izango zara aukera hauetako baten bidez.

Zerrenda

- Ordenagailuan sortutako zerrenda.

Albuma/Artista/ Jeneroa

- Musika fitxategiak Albumaren, Artistaren edo Generoaren arabera sailkatzen dira, betiere, etiketetan gordetako informazioaren arabera. Informazio hori ez duten fitxategiak **“Fitxategi ezezaguna”** izenez sailkatuko dira.

Soinu guztiak

- Telefonoko memoriako eta memoria-txarteleko abesti guztiak ditu.

Orain dela gutxi jokatutakoak

- Entzundako azken 12 abestiak ditu.

Gogokoen zerrenda

- Abesti gogokoak **“Gogokoen zerrenda”** karpetara erraz sar daitezke, irakurtzen ari dela * ↗ luze sakatuta (100 gehienez).



Eguneratzea


- Eguneratu memoria-txartelean gordetako abestien informazioa.

⁽¹⁾ mp3, m4a eta aac formatua duten musika-fitxategiak bakarrik bistaratuko dira multimedia-irakurgailuan.

14.2 Doikuntzak

Aukera hauek erabil ditzakezu eskuineko funtzio-tekla sakatuta:

- Irakurketa modua**
- Arrunta, Zati hau errepikatu, Dena errepikatu, Shuffle eta Shuffle-modua errepikatu. Musika irakurtzen ari den bitartean  sakatuta ere pertsonaliza dezake.
- Ekualizadorea**
- Hainbat musika-estilo, telefonoan aurrez ezarrita. Musika irakurtzen ari den bitartean  + sakatuta ere pertsonaliza dezake.

Irakurketa-pantailatik, sakatu  entzungailuan irakurri modutik BT gailuan irakurri modura igarotzeko.

- Kolorea**
- Aldatu zure musika-irakurgailuaren ingurunea.

14.3 Hitzak irakurtzea

Musikarekin batera bistaratu daitezke hitzak. Musika-fitxategiaren izen bera duen .lrc fitxategia bereizi beharko duzu.

15 Jokoak & Aplikazioak

Zure Alcatel telefonoak aplikazioak eta java jokoak® har ditzake⁽¹⁾. Beste joko eta aplikazio batzuk ere deskarga ditzakezu.

15.1 Aplikazio bat martxan jartzea

Hautatu **“java”** aplikazioak exekutatzeko.

15.2 Java doikuntzak

“Joko & aplikaz.” menuan Java parametroak kudeatu ditzakezu. Java audio-fitxategia eta Java bibratzea ezarri, zenbat toki geratzen den jakin eta dagoenak zenbat betetzen duen jakin dezakezu.

15.3 Java deskargatzea

“Joko & aplikaz.” menutik deskargatu ahal izango dituzu Java™ aplikazioak, **“Aukerak”** ataletik **“Deskargatu”** aukera hautatuta. Aplikazioak deskargatzeko WAP gogokoen eta eskuragarrien zerrenda bistaratuko da. Hautatu gogokoa, nahi den WAP orrira joateko

⁽¹⁾ Herrialdearen edo operadorearen arabera.

Erantzukizunik eza

Aplikazioak deskargatzeak edo erabiltzeak ez du kaltetuko ez aldatuko telefono mugikorrean duzun softwarearik (Java[®] bateragarriak izateko diseinatuak).

TCA Mobile Limited-ek edo haren filialek ez dute ardurarik eta ez dute bermerik eskaintzen aplikazioen geroko erabilerari buruz edo gailua erostean instalatuta ez zeuden aplikazioei buruz.

Eroslea da gailuaren edo aplikazioen/softwarearen galera edo kalteen eta, oro har, aipatutako aplikazioen/softwarearen erabilerak eragindako kalte eta ondorioen erantzulea. Aipatutako aplikazioak/softwarea edo gerora instalatutako funtzioen bat galtzen badira arrazoi teknikoengatik, gailua aldatzeagatik/konpontzeagatik, telefono mugikorraren jabeak eragiketa errepikatu behar du eta deskarga edo konfigurazioa berriz egin. TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek ez dute eskaintzen bermerik eta ez dute erantzukizunik eragiketa gasturik sortu gabe errepikatu ezin bada edo burutu ezin bada.

16 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari

16.1 PC programa-paketea

Kutxan PCrako programen paketea duen CD-ROM bat dago. Web orritik, programen bertsio berriak deskargatu ahal izango dituzu doan. Programa-paketea hauek sartzen dira:

- Segurtasun-kopiak egitea/leheneratzea
 - Mugikorreko informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egin eta nahi denean leheneratu ahal izango duzu.
- GPRS modema
 - Erabili telefonoa PCa Internetera konektatzeko.
- Multimedia pertsonalizatzea
 - Pertsonalizatu telefono mugikorra, soinuekin, melodiekin, irudiekin eta animazioekin
- Musikaren kudeaketa
 - Sortu eta transferitu musika-fitxategien irakurketa-zerrenda. Letrak aldatzeko aukera ematen du.
- Mezularitza
 - Zure ordenagailuan SMS/MM/E-mail/IM ⁽¹⁾ ak idatzi ditzakezu erraz eta mugikorrera transferitu.

Sistema eragile bateragarria

- Windows 2000/XP/Vista

⁽¹⁾ Eskuragarritasunaren eta operadorearen arabera.

17 Testua idazteko modua / Karaktereen taula ⁽¹⁾


Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude.

- Arrunta
- Prediktiboa, T9 moduarekin

Arrunta

Modu honekin, teklei dagozkien letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko. Sakatu teklak behin eta berriz, nahi duzun letra bistaratu arte.

Tekla askatzen duzunean, hautatutako karakterea testuan sartzen da.




⁽¹⁾ Txinera eta antzeko hizkuntzatarako, mesedez, irakurri testua sartzeko bakoitzari dagokion liburuxka.


Testua sartzeko modu prediktiboa

Modu honekin azkarrago idatz daiteke testua.

Idatzi hitza **2** abc eta **9** wxyz bitarteko tekla bat sakatzuz. Tekla gehiago sakatzuz testua luzatzen den neurrian, hitza aldatzen joango da.

Adibidez: **“Tomorrow”** hitza idazteko, sakatu tekla hauek: **8** tuv, **6** mno, **6** mno
= Too -> **6** mno -> tomorrow





1 00 tekla

- Luze sakatuta: sartu 1

Teklatua

- Labur sakatuta: alfabetoa sartzeko (a, b)
- Luze sakatuta: zenbakiak sartzeko (1,2,3)

* # tekla

- Labur sakatuta: uneko modutik modu hauetara pasatzea:
Ab -> AB -> ab
- Modu prediktibotik (T9) modu arruntera aldatzeko
- Luze sakatuta: sinboloen taulara joatea

0 + tekla

- Labur sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzeko
- Luze sakatuta: zero idazteko.

Nabigazio-tekla:

- ◀ ▶ : ESKUIN/EZKER: hitza ontzat emateko
- ▲ : GORA: Hiztegi hurrengo hitza
- ▼ : BEHERA: Hiztegi hurrengo hitza

00 tekla

- Labur sakatuta: modu prediktiboan bistaratutako hitza ontzat emateko eta/edo espazio bat ␣ sartzeko.

Tekla	Letra larri latindarrak	Letra xehe latindarrak
1 ∞	., - ? ! ' @ : 1	., - ? ! ' @ : 1
2 abc	A B C 2 Æ Å Ä Å Æ Ç	a b c 2 ã ä å æ ç
3 def	D E F 3 È É Ê Ë Ì	d e f 3 è é ê ë ì
4 ghi	G H I 4 Ğ Ğ Î Ï	g h i 4 ğ ğ î ï
5 jkl	J K L 5 Ķ Ļ Ļ Ļ	j k l 5 ķ ľ ļ
6 mno	M N O 6 Ñ Ñ Õ Ö Ø	m n o 6 ñ ñ õ ö ø
7 pqrs	P Q R S 7 Ŕ Ŕ Š Š	p q r s 7 ŕ ŕ š š
8 tuv	T U V 8 Ţ Ţ Û Ü Ü	t u v 8 ț ț û ü ü
9 wxyz	W X Y Z 9 Ý Ž Ž Ž	w x y z 9 ý ž ž ž

Karaktereen taula hori orokorra da. Ez dira azaltzen erabil daitezkeen karaktere guztiak. Letrak hizkuntzen arabera proposatzen dira.

Sinboloen taula

Luze sakatu * + tekla, ikurren barra ikusteko. Kurtsorea erdian azaltzen da. Erabili nabigazio-tekla lekuz aldatzeko eta OK tekla baliozkotzeko.



18. Telefonoaren bermea

Zorionak eman nahi dizkizugu telefono hau hautatzeagatik, eta egindako aukerarekin gustura egotea espero dugu.

Erosi duzun gailua bermatuta dago, 1999/44/EE Europako Batasunaren Direktibaren arabera eta, bereziki, 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera; bi (2) urtez –ordainagirian azaltzen den erosketa-datatik kontatzen hasita– izan ditzakeen fabrikazio-akatsi dagokie bermea, osagai kontsumigarriak izan ezik, adibidez, bateriari (osagai kontsumigarrien bermea sei (6) hilekoa da). Berme honen arabera, izandako akats guztien berri eman behar diozu saltzaileari (edo mantentze-lanetarako zentro teknikoari; horien zerrenda web gunean dator: <http://www.alcatel-mobilephones.com>) atzerapenik gabe, eta bermearen ziurtagiria behar bezala beteta eta/jedo erosketaren faktura erakutsi behar diozu. Hor datu hauek argi eta garbi adieraziko dira: izena, modeloa, IMEI zenbakia, data eta saltzailea.

Berme hau ez da aplikatuko arrazoi hauengatik sortutako akats edo kalteengatik:

- 1) erabiltze edo instalatzeko argibideak ez betetzea,
- 2) erabiltzailearen eremu geografikoan indarrean dauden arau teknikoak eta segurtasun-arauak ez betetzea,
- 3) energia-iturriak eta instalazio elektriko orokorra behar bezala ez zaintzea
- 4) mugikorra dagoen ibilgailuak istripua izan badu eta lapurreta egin badute, baita bandalismoa, kolpeak, erorketak, erabilera txarra, tximistak, suteak, hezetasuna, korrosioa, likidoak sartzea edo babesik ez izatea ere,
- 5) TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek emandakoak ez diren edo gomendatzen ez dituzten ekipoetan sartzea materiala, baldin eta idatziz adostuta ez badago,
- 6) aldaketak egitea, produktua irekitzea edo TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek baimendutakoak ez diren pertsonen edo baimendu gabeko mantentze-lanen zentroek egindako konponketak,
- 7) materiala fabrikatutako helbururako ez beste helburu baterako erabiltzea,
- 8) ohiko higadura,
- 9) kanpoko elementuek eragindako funtzionamendu okerra (adibidez: beste ekipo batzuk eragindako perturbazioak, korrante elektrikoaren tentsioaren eta/jedo telefono-lineen aldaketak).
- 10) araudiaren bilakaeraren ondorioz materialean egindako aldaketak edo egokitzapenak, nahitaezkoak izan arren, eta sare zelularren parametroen aldaketak,

- 11) TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek produktuetan eguneratzeak egiteko eskubidea dute. Ez daude beharturik lehendik saldutako produktuetan aldaketa horiek egitera eta ezingo dira arrazoi horrengatik produktuak itzuli.
- 12) hedapen txarrarengatik sortutako konexio-akatsak edo operadoreen irrati-sarearen estaldura faltagatik sortutakoak.
- 13) berme honetatik kanpo daude kendu edo aldatu diren markak eta serie-zenbakiak dituzten telefonoak edo osagarriak, baita etiketa askatuta edo hondatuta duten telefonoak ere.

Arestian zehaztutako xedapenek soilik osatzen dute fabrikatzailearen aurka aurkezteko errekurtsio bakarra, telefonoak edo osagarriek akatsen bat dutenean. Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek ordezkaritza komertziala duten herrialdeetan gauza daiteke bermea.

Erreklamazioak egiteko jarri harremanetan bezeroen arreta-zerbitzuarekin (902 113 119). Posta bidez ere egin dezakezu:

TCT Mobile

Av. De Bruselas, 5

28109 Alcobendas (Madril)

BERME-ZIURTAGIRIA

Modeloa:

Izena:

IMEI zenbakia:

Erosketa-data:

Saltzailearen zigilua eta sinadura:

Ekipo honen bermea izateko, ezinbestekoa da dokumentu hau behar bezala beteta aurkeztea.


Baldin eta frogatzen bada egindako aldaketak egokiak ez direla, eta 6 hilabeteren barruan akatsak berriro nabarmenak badira, ekipo akastunaren ordez ezaugarri berdinak dituen ekipo berri bat eman diezazuten eska dezakezu edo, bestela, erositakoan ordaindutako dirua itzul diezazuten.

19. Osagarriak ⁽¹⁾


Alcatelen GSM telefono mugikorren azken belaunaldiak “esku libreko funtzioa” du barnean, telefonoa distantzia jakin batetik erabili ahal izateko, adibidez, mahai baten gainean dagoenean. Zure elkarrizketak konfidentzialak izan daitezten, entzungailu edo esku libreko eramangarri bat ere badu.



Kargagailu estandarra



Entzungailu estereo



Bateria



Zure modeloarekin bateragarriak diren Alcatel bateriekin, kargagai-
luekin eta osagarriekin bakarrik erabili behar duzu telefonoa.

⁽¹⁾ Kontratu kanpoko argazkiak.

20. Arazoak eta irtenbideak

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:

Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.

- Bateria optimizatzeko, bateria erabat kargatzea gomendatzen dizugu (🔋).
- Telefonoak gaizki funtziona ez dezan, telefonoaren memorian datu gehiegi ez gordetzea gomendatzen dizugu.

Gainera, puntu hauek egiaztatzea komeni da:

Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu ✂️ tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu ✂️ tekla.

Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatua blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga

Mugikorrek autonomia oso laburra du

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.

Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu bateria ez dagoela erabat deskargatuta, kargaren irudiak hainbat minutu behar ditu eta gero txistu fin bat egin dezake
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C + 40 °C bitartean)
- Egiaztatu nola sartzen den bateria: bateria kargagailua konektatu baino lehen sartu behar da
- Egiaztatu Alcatelen kargagailua eta bateria erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, egiaztatu korrante-hartuneen bateragarritasuna


Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorrek beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k) (ikus 49. orrialdean)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela (ikus 17. orrialdea).
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik debekatu (ikus 29. orrialdea)

Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela)
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik desbideratu (ikus 29. orrialdea)
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

Deien audio-kalitatea ez da onena

- Dei bat egitean, bolumena  teklaren bidez doi dezakezu.
- Kontrolatu  irrati-seinalearen ikonoa

Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

Ezin dut agendako zenbakirik markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

Ezin dut erregistrorik sortu nire agendan

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela beteta, kendu fitxak edo gorde fitxak telefonoaren agendetan (profesionala, pertsonala).
- Egiaztatu **“Jasotako deiak”** menuko **“Debekatuak”** aukeran **“SIM dir. izan ezik”** funtzioa ez dagoela aktibatuta

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia **“Nire zenbakiak”** atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago

Ezin dut MMS mezurik ez bidali ez jaso, ez ahozkorik ez idatzizkorik

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon daiteke
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau erabil dezakezula, eta egiaztatu MMS parametroak (ikus 41. orrialdea)
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Saiatu berriz gero; SMS zentroa beteta egon liteke

ikonoa agertzen da hasierako pantailan

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

<<--> ikonoa bistaritzen da

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

Okerreko 3 PIN kode sartu ditut

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

Telefonoari ezin diot ordenagailua konektatu

- Lehenik, instalatu Alcatelen PCrako programen paketea
- Hautatu “Konexioaren instalazioa” konexioa instalatzeko
- Egiaztatu ordenagailuak Alcatelen PCrako programen paketea instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela

Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu

- Egiaztatu lekua libre duzula
- Ezabatu zenbait fitxategi
- Hautatu MicroSD txartela deskargatutako fitxategiak gordetzeko
- Egiaztatu zure operadorearekin duzun harpidetzaren egoera.

Besteek ezin dute Bluetooth bidez telefonoa detektatu

- Egiaztatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat (ikus 50. orrian)

Alcatel-Lucent-en marka erregistratua da ALCATEL eta TCT Mobile Limited-ek erabiltzen du lizentzia bidez.

Eskubide guztiak erreserbatuta © Copyright 2008
TCT Mobile Limited.

TCT Mobile Limited-ek bere ekipoen ezaugarriak aurrez jakinarazi gabe aldatzeko eskubidea du.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008